



ALBOAN  
www.alboan.org

## Arlo publikoaren zaintza, herritarren parte-hartzetik



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## ■ Esperientziak ALBOAN

...

7. Parte-hartzea, gizartea eta demokrazia. (2015)
8. Badauka generorik partaidetzak? Oztupoak hausten emakumeen partaidetzan. (2015)
9. Partaidetza-prozesuak, gizarte zibiletik eta herri administrazioetatik. Peruko kasua. (2015)
10. Gizarte-mugimenduak eta herritarren parte-hartzea. (2015)
11. Parte-hartzea tokiko esparrutik bideratuz. (2015)
12. Arlo publikoaren zaintza, herritarren parte-hartzetik. (2015)

## Arlo publikoaren zaintza, herritarren parte-hartzetik



Argitaratzailea:

**ALBOAN**

Aita Lojendio kalea 2, 2.  
48008 Bilbao  
Tel.: 944 151 135

Barañain etorbidea, 2  
31011 Iruñea  
Tel.: 948 231 302

Andia, 3  
20004 Donostia  
Tel.: 943 275 173

Estenaga Apezpikua, 1  
01002 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org

Data: Ekaina 2015

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: BI-1993-2015

---

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, baldin eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.

<b>Sarrera</b>	<b>5</b>
<b>Herritarrek politika publikoak kontrolatzeko moduak: gizartean eragiteko proposamen bat</b>	<b>7</b>
<i>Mary Tere Guzmán</i>	
Proposamen zehatz bat, ALBOANen eskutik	7
Ibilbidea: Nola garatu da metodologia hau?	9
Zer oinarri du?	9
Proposamena: “Erabakiak aldatu: gizartean eragiteko metodologia”	12
<b>Herritarren kontrolerako formak: teknologia berrien zeregina</b>	<b>17</b>
<i>Antxon Gallego</i>	
E-partaidetzaren definizioa	17
Esparru Instituzionaleko partaidetza	18
E-partaidetzaren mugak	18
E-partaidetzaren aukerak	19
E-partaidetzaren adibideak	20
Ondorioak	22
Gobernu Irekia, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzeko	22

<b>Herritarrek politika publikoak kontrolatzeko moldeak:</b>	
<b>Propuesta Ciudadana Taldeak zaintzaren arloan egindako bidea</b>	<b>25</b>
<i>Eduardo Ballón</i>	
Propuesta Ciudadana taldea	25
Testuingurua eta esku-hartzearen ikuspegia	25
GPTren esku-hartzeak: funtzionamendua	26
Propuesta Ciudadana taldearen zaintza lana	29

## Sarrera

2008an lehertu zen krisi ekonomiko eta sozialak krisi politiko sakona ere ekarri du. Espainiako Estatuko hainbat plazatan, “Ez gaituzte ordezkatzin” zioten oihuak entzun ziren, eta horiek isla izan zuten geroago beste zenbait herrialdetan. Bertako herritarrak kalera atera ziren, euren beharrak eta arazoak kontuan hartzen ez dituen sistema batekiko gaitzespena erakusteko. Aldi berean, azken urteotan, hainbat erakunde publiko herritarren partaidetza handiagoaren alde agertu dira, herritarren eta administrazio publikoen arteko topaketa eta bateratzea lortzeko asmoz. Nola gerta daiteke paradoxa hori?

ALBOAN erakundeak luzarotik dabil herritarren partaidetzaren gaia lantzen. 2007. urtean, lehenengo ikerketa argitaratu genuen; bertan, partaidetzaren oinarriak ezarri genituen, eta Hegoaldeko hainbat erakunde kideren esperientziak Euskal Herrian egindako beste esperientzia batzuekin elkartu genituen. Protagonistak eraikitzen dituen eta pertsonen, taldeen eta erakundeen gaitasunak indartzen dituen partaidetzaren aldeko apustua egiten dugu. Pertsonak zerbitzuen onuradun gisa antzematen dituen ikuspegi utilitarista gainditzen duen partaidetzaren aldeko apustua egiten dugu, euren burua eta ingurua garatzeko eragile diren herritarren protagonismoa sustatzen duen partaidetzaren aldekoa. Modu horretan, partaidetzako prozesuek herritarrentzako oinarritzko prestakuntzarako eskola gisa jarduten dute, eta gerora sortuko diren aldaketa pertsonal eta kolektiboen oinarria dira.

Baina partaidetzak ez du herritartasuna eraikitzen soilik; demokrazia zimendatu ere zimendatzen du. Hegoaldeko hainbat herrialdetan, neurri handi batean herritarren partaidetzako esperientziei esker, bertako sistema demokratiko ahulak indartu dira. Zenbait kasutan, politika publikoak hobetu eta giza garapenerako emaitzak lortu ahal izan dira. Horretarako, beharrezkoa da

uste oker hau apurtzea: pobrezia egoeran dauden pertsonak izaki pasiboak, hartzaileak eta garapen politiken onuradunak direlako ideia, alegia. Partaidetza sustatzeak herritarrekiko ikuspegia aldatzea dakar, eta partaidetza-prozesu orok herritartasuna eraikitzeke eduki behar duen izaera sustatu behar da; aukerak lortzeko eta askatasuna baliatzeko baldintzak sortzea dakar horrek.

Herritarren partaidetzako erronka handiak bi ardatzen inguruan biltzen dira: bata, nola inplikatu gizartea interes komunak zehazteko; bestea, zein espazio eta alorretan hartu behar diren erabakiak. Erakunde publikoek gizartearen eta horien talde antolatuen interesak ulertzeko duten modua ere beste alderdi garrantzitsu bat da, bezerotzan eta erakundeen edo horien liderren kooptazioan erori gabe. Partaidetzarako espazioak sustatzeak alderdi publiko, sozial eta politikoetan interesa duen gizartea eraikitzeke bidean jarri behar gaitu. Interes hori lagungarria izan daiteke gizarte zibileko talde formalentzat eta herritarrentzat oro har, Estatuarekin eztabaidatzeko eta negoziatzeko baldintzak eraikitzeke. Baldintza horiek herritarren ondasun komuna eta ongizate orokorra lortzera bideratu behar dira, eta, horretarako, ezinbestekoa da herritarrek protagonismoa hartzea, euren bizitzan eragiten duten gaien inguruko erabakiak hartzeko orduan.

Eskuetan duzun koadernoan partaidetzaren inguruan gutxien landu diren aldeetan oinarrituta dago, batik bat. Espazio partekatuetan hartu diren erabakien zaintza edota jarraipena. Sarri askotan, uste da erabaki bat hartzearekin batera bukatzen dela partaidetzaren egitekoa. Partaidetza-prozesuak, hala ere, askoz harago joan behar du, hartu diren erabakien jarraipena egin, eta, halaber, betetzen diren ala ez ikusteko, eta, betetzen diren kasuetan, desbideratzerik gertatzen ez dela egiaztatzeko. Elementu nagusietako bat den arren, zoritxarrez, ez zaio ia jaramonik egiten. Partaidetza-prozesu bat bertan behera gera daiteke, bai hartutako erabakiak betetzen ez direlako, bai erabakitakoaren justu kontrakoa egiten delako, ordura arteko prozesua deslegitimatuz.

Jarraipena eta zaintza egiteko, geroz eta baliabide teknologiko gehiago ditugu eskura. Zenbait aplikazio berri aurkeztuko dizkizuegu. Horrez gain, Perun egiten den zaintza-lanaren berri ere emango dizuegu, bai eta gazte-taldeetan aplikatzeko ALBOAN Fundazioak egindako esperientzia baten berri ere.



## Herritarrek politika publikoak kontrolatzeko moduak: gizartean eragiteko proposamen bat

*Mary Tere Guzmán.*

ALBOANeko Ekintza Publiko eta Parte-hartzeko arduraduna

*“Gauza txikitxoak dira.  
Ez dute pobrezia desagerrarazten,  
ez gaituzte azpi-garapenetik ateratzen,  
ez dituzte ekoizpen-bitartekoak eta aldatetarenak gizarteratzen.  
Ez dituzte Ali Babaren kobazuloak desjabetzen.  
Baina, akaso, egitearen poza piztuko dute, eta ekintza bilakatu.  
Azken batean, errealitatearen gainean ekitea, eta hori aldatzea,  
apurtxo bat besterik ez bada ere,  
horixe da modu bakarra, erakusteko,  
errealitatea eraldatu daitekeela”.*

*Eduardo Galeano*

### Proposamen zehatz bat, ALBOANen eskutik

Hastapenetatik bertatik, ALBOANen eraketaren oinarrian beti egon dira presente funtsezko identitate-ezaugarri batzuk, ALBOAN den modukoa izatea ahalbidetu dutenak: batetik, herritar-komunitate global bat eraikitzeko konpromisoa, munduko ezberdintasunak sortzen dituzten bidegabekeriak salatzeke, eta, bestetik, guztion ongizatea sustatuko duen kultura bat eraikitzeke gogoia, pobrezia sortzen duten egiturak eraldatzeko, tokiko mailan eta maila globalean.

Horretarako, ALBOANek nazioarteko lankidetzaren alorreko prozesuetan parte hartu du, hainbat testuingurutan, bai eta hezkuntza-ekimenetan ere, hurbileko ingurunea sozialki eraldatzeko. Abian jarri zenetik, ALBOANek sinetsi izan du, herritar konprometitua sustatzeko, beharrezkoa dela herritarrek parte hartzeko guneak babestea.

Gure erakundeari bereziki interesatzen zaizkio parte-hartzearen inguruko hausnarketa eta sustapena, parte-hartzea ezinbesteko osagaia baita herritarren ekinbideak gauzatzeko. Gaur egun, gizarte-erakunde guztiek erronka handia dute: parte-hartze guneak sortzea eta birsortzea, gaitasun kolektibo eta sozialak eratzeko. Parte-hartze prozesuak ez dira errazak, izan ere, hainbat alderdi uztartu behar dira pertsonengan eta gizarteetan aldaketak gertatzeko.

Azken urteotan, gizarte zibileko taldeek eta herrialdeetako gobernuek eurek indar biziagoz sustatu dituzte parte-hartze guneak. Ikuspegi bat nagusitu da, hain zuzen, pertsonak subjektu aktiboak direla eta beren garapen propioa, eskubideak eta eginbeharrak gauzatu behar dituztela. Ikuskera horren barruan sustatu dira hitz egiteko eta parte hartzeko guneak.

Horregatik, seguru gaude ez dela garapenik egongo, baldin eta gizarte zibileko taldeek eta ahotsek parte hartzen ez badute, beraien garapen propioaren protagonista ez badira. Gure asmoa da gizarte bat eraikitzea, non baztertutako pertsonen iritzia eta ikuspegia kontuan hartuko baitira, erabakiak hartzeko orduan eta herritar horien bizitzetan zuzenean eragingo duten politika publikoak diseinatzeko orduan.

Hori dela-eta, ALBOANek proposatzen du metodologia zehatz bat garatzea, interesa daukaten herritar eta herritar-taldeek eskura jartzeko, betiere, parte hartzeko gogoz badaude, eta entrenatu eta ikasi nahi badute, auzi publikoetan parte hartzen hasi aurretik. Parte-hartzeari buruzko prestakuntza-proposamenak eskainiko dira, baina erronka nagusia da gizarte parte-hartzerako eta engaiamendurako proposamenak eskaintzea, jendea zinez engaiatu dadin.

Hortaz, proposamen zehatz bat garatu dugu: *“Erabakiak aldatu: gizartean eragiteko metodologia bat”*. Metodologia hau lan-ildo bihurtzea nahi dugu, esparru publikoetan parte hartu nahi duten taldeek erabil dezaten, beraien bizitzei, alde edo moldez, eragiten dieten proposamen eta programa publikoei jarraipena egiteko, edo mobilizatzeke, beste pertsona batzuekin batera, kausa komun baten alde. Proposamen honek 3 oinarri ditu:

1. Herritar konprometitu eta aktiboak sortzeko apustua.
2. Parte-hartzea sustatzea, herritar horien praktika bezala.
3. Engaiamendua eta parte-hartze soziala ahalbidetzen duten guneak eta esperientziak sortzea.

## Ibilbidea: Nola garatu da metodologia hau?

Nazioarteko lankidetzako programa bati esker; izan ere, programa horrek Hondurasko erakunde aliatuekin hitz egitea eta elkarlanean aritzea ahalbidetu zuen, lan-ibilbide bat garatu genuen, elkarrekin, gure proposamen zehatza garatzeko, gure tokiko testuingurua aseko zuena. Hurrengo urratsa: beste iturri batzuekin egiaztatu genuen, eta herritarren kontrola interesatzen zitzaaien taldeei helarazi genien. Horrela eraiki genuen talde antolatuen lana babesteko metodologia bat. Helburua: egitura bat, baliabideak, erreferentziak eta estrategiak eskura jartzea; horiei esker, taldeek aukera izango dute, beren tokiko esparrutik, gizarte-garapenarekin lotutako gai, programa edo politikak jarraitzeko.



## Zer oinarri du?

Proiektu honek 3 iturri ditu:


1. Hainbat herrialdetako erakunde aliatuekin egindako lana eta beraiekin izandako **elkarrizketa**. Adibidez, Latinoamerikan:
  - Ikerketa, bisitak eta egiaztatzea.
  - Topaguneak.
  - Proposamena zabaltzea, eta aliantza berriak bilatzea, aktiboki.

## 2. Errealitateari erreparatzea.

- Informazio-irrigarritasunari buruzko elkarrizketa.
- Mugimendu eta parte hartzeko modu berrien sorrera.
- Krisi-testuingurua.

## 3. Geure **esperientzia** bera.

- Prestakuntza-proposamena.
- Nazioarteko lankidetzako eta lankidetzazko deszentralizatuko aurrekontuen jarraipena.
- Taldeei laguntzea.



## 1. Elkarrizketa. Zer aurkitu genuen bila aritu ginenean?

- Aniztasun handia aurkitu genuen, izan ere, askotariko moduetan ulertzen da herritarrek egindako zainketa eta kontrola. Gizarte-zainketa hori egiteko askotariko esperientzia, ikuspegi eta moduak ere aurkitu genituen.
- Ez zen erraza suertatu gai giltzarri batzuk identifikatzea, hartara herritarrekin lan egiteko; izan ere, herritarrek kontrola egitea, sarritan, oso konplexua da. Adibidez, zaila da erakunde publikoen aurrekontuak jarraitzea edo konpromiso politikoak kontrolatzea. Nola eraman ditzakegu gai horiek tartean behin boluntario edo eliz taldeetan batzen den jendearengana,

jende anitza izanik? Nola erraztu konplexuak diruditen eztabaidak, egiteko modukoak eman dezaten, konpontzeko modukoak eta guk geuk parte hartzeko modukoak?

- Zaila gertatu zitzaigun zainketa proposamenaren harira euskarri pedagogikoak aurkitzea. Nola ikasi zainketa egiten?
- Proposamenak aurkitu ziren, baina oso tokikoak edo oso globalak ziren.
- 3 multzotan bildu genituen aurkitutako esperientziak:
  - Eragin politikoarekin eta lobby jarduerarekin lotutakoak.
  - Ikerketarekin eta nazio-politiken jarraipenarekin lotutakoak.
  - Jendea ahalduntzearekin lotutakoak, kontrola eta zainketa egiteko.

## **2. Begiradatik errealitatera. Zer topatu genuen?**

ALBOANek ikertzeari ekin zion, proposamen propio bat garatze aldera, eta honako hauekin egin zuen topo, hurbileko errealitatean:

- Eztabaida zegoen, Estatuaren informazio-eskubideari buruz. Bizi-bizi zegoen gaia, eta hainbat pertsona eta talde horretan ari ziren lanean, proposamenak garatuz eta bideak jorratuz, Gardentasun Legearen harira eragitea lortzeko.
- Mugimendu berriak eta parte hartzeko modu berriak sortuak ziren, indarrez, eta erantzun bat eskatzen zuten.
- Krisi-testuingurua. Krisiaren ondorioz, agerian geratu ziren hainbat arazo, ordura arte ez zirenak herritarren kezka izan. Horrela, hainbat pertsonari parte hartzeko gogoak piztu zitzaizkien, eta interes biziz jarraitzen hasi ziren, hala administrazio publikoak nola konpromiso politikoak. Esate baterako, zorpetze publikoak interes handia sortu zuen herritarren artean, eta, horren ondorioz, jarraipen- eta kontrol-ekimenak jarri ziren martxan.

## **3. Esperientzia propioa. Zer aurkitu genuen?**

- ALBOANek prestakuntza-proposamen bat zeukan, parte-hartzeari buruzkoa, eta, horri esker, hausnartzeko aukera izan dugu, bai eta hezkuntza-euskarriak sortzeko aukera ere, parte-hartzea ulertzen dutenak praktika

gisa eta prestakutza-esparru gisa. Proposamen hori, batez ere, hezkuntza arautura bideratzen da, eta funtsezko oinarria izan da gizarte eta herritarren parte-hartzearen alorra jorratzeko.

- Bestalde, azpimarratzekoa da nazioarteko lankidetzarekin lotutako aurrekontuei guk geuk egin diegun jarraipena: lankidetzaren deszentralizatuko ei erreparatu diegu, batez ere. Zaila da aurrekontu-proiektuak ulertzea, aurrekontuen gauzatzea jarraitzea eta konpromisoak betetzen direla egiaztatzea, eta bide horretan hainbat gauza ikasi ditugu, besteak beste, ez dela erraza informazio-eskubidea gauzatzea eta erabaki politikoetan parte hartzea ere ez dela gauza samurra: espezializatu egin behar zara, ahalegindu, eta denbora eskaini.
- Gazte-taldee i eta antolatutako herritarren taldee i laguntza emaneg egin dugu ibilbidea. Hainbat urtez laguntza eman diegu elkartasunarekin eta justizia sozialarekin konprometitutako pertsona-taldee i, antolatzeko modu zehatzak zituztenak. Gure ardura nagusia izan da babesa emateko bide bat topatzea, beraien gaitasunak sendotzeko moduan, eta elkarrekin ibiltzeko moduan, sentsibilizaziotik abiatuta konpromiso sozialerantz.



**Proposamena: “Erabakiak aldatu: gizartean eragiteko metodologia”**

### 1. Zer proposatzen dugu?

- Herritar-taldea k engaiatu daitezela, politika eta jarduera publikoak jarraituz eta pertsona guztientzako justizia sustatuz. Zeruertz etiko-politiko argia da: gizarte-eraldaketa, justizia soziala eta guztion ongizatea da helburua.
- Herritarrak izan daitezela protagonista.

- Parte-hartzea funtsezkoa izan dadila, ekiteko gogoia biderkatzeko, baita gainerako herritarrengan ere.
- Gizarte-eraldaketa izan dadila helburua, argi eta garbi. Aldaketa bat gertatzeko, talde eta komunitate gehiagok hartu behar dute parte eraldaketa-proposamenetan. Eraldaketa hori posible da, eta, hori gertatzeko, pertsonen eta inguruaren eskubideak aitortu behar dira. Eraldaketa gertatzeko, engaiatu egin behar gara, hala pertsona gisa nola talde gisa, eskubideak eta erantzukizunak baititugu, pertsona guztiak duin bizi daitezkeen mundua eraikitzeko.

## 2. Helburua

Pertsonen garapenaren aurka dauden edo gizarteari mesederik egiten ez dioten lege eta egoerak eraldatzea. Existitzen ez diren proposamen berriak sustatu behar dira, beharrezkoak baitira gizartearentzat.

Helburu hori lortze aldera, helburu ertainak ezarri ditugu:

- Informazioaren irisgarritasuna.
- Herritarren parte-hartzea.
- Esparru publikoa eraikitzeko guneak eta elkarrizketarako guneak.

## 3. Bide-proposamena

Zer asmo daukagu urrats bakoitzarekin? Zer baliabide erabili daitezke? Zer lan-ildo, zehazki? Labur, ALBOANek gizartean eragiteko proposatutako metodologia gauzatzeko urratsak azalduko ditugu. Sakonago ezagutu nahi baduzu, *“Erabakiak aldatu: gizartean eragiteko metodologia”* dokumentua irakur dezakezu, guztien eskura baitago ALBOANen webgunean, hezkuntza-materialen alorrean. Bertan, gehiago garatzen dira metodologia-urratsak, eta, horrez gain, gomendioak eta adibide zehatzak ere agertzen dira, kokatzen lagundu dezaketanak.

1. **urratsa.** Taldekideak erakartzea eta motibatzea. Urrats honetan, funtsezko helburua da interesa eta curiositatea piztea gure taldekideengan eta hurbileko pertsonengan. Ikus dezatela zerbait gertatzear dela, edo, honezkero, gertatzen ari dela.

2. **urratsa.** Zure neurrira egin. Elkarrekin eztabaidatzeko garaia da, eta kezka eta desirak lurrera ekartzeko, puntu zehatz bilakatuz. Zer zaindu edo kontrolatu nahi dugu? Zerri erreparatu nahi dio taldeak? ALBOANek zenbait kontzeptu eta zeruertz proposatzen ditu, lanerako balio dezaketenak, adibidez: gizarte-garapena, berdintasuna eta iraunkortasuna.
3. **urratsa.** Martxan. Datuak, lekukotasunak, erreferentziak eta bestelakoak biltzeko garaia da, alegia, informazio zehatza biltzeko garaia. Informazio horri esker, gero, posible izango da zerbait esatea, eragina edukitzea edo gaira hurbiltzea, modu ahalik eta argi eta zabalenean.
4. **urratsa.** Buruari eragin. Analisi sakon eta kritikoa egiteko garaia da. Zifrekin eta datuekin jolasteko garaia ere izan liteke, formatu ezberdinetan eta ikuspegi ezberdinetatik erakutsiz, errealitateari ahalik eta modu zabalenean begiratzeko.
5. **urratsa.** Azaldu, zabaldu eta proposatu. Komunikatzeko garaia da, beste batzuk motibatuz, biderkatze-efektua lortzeko. Oso garrantzitsua da proposamen argi bat edukitzea, herritarrek gonbidatzeko. Proposamen zehatz, erraz eta erakargarriak, jendea batu dadin.
6. **urratsa.** Zer lortu dugu? Zer falta da? Eskerrak emateko garaia da, lorpenak ospatzeko garaia. Oraindik egiteko dagoena aurkezteko garaia da, jendea animatu dadin ekintza honetan edo antzeko ekintzetan parte hartu eta engaiatzera. Lorpen txikiak behar ditugu, beste pertsona batzuk animatzeko eta motibatuz.
7. **urratsa.** Esperientziaren berri eman, eta erakartzen eta motibatzen jarraitu. Esperientzia konpartitzeko garaia da, honako hauen berri eman: zerk motibatu gaituen, nola motibatu ditugun beste pertsona batzuk, zer ekintza egin ditugun, zenbat aurreratu dugun eta zer lortu dugun.

#### 4. Erronkak

- Gizarte-oinarria zabaltzea, zeinari metodologia eta laguntza eskaintzen baitiegu. Herritarren parte-hartzeak izan dituen emaitzen berri eman behar dugu, jendea xaxatu eta esperientzia beraiekin konpartitu, are jende gehiago engaiatu dadin.



- Informazioaren azterketa fintzea. Ez da langintza erraza datuak analizatzea, alderatzea, jarraitzea, etab. Gizarte-erakundeek laguntza eman behar dute, informazioa aztertzeko eta eragin-guneak era argian zehazteko, analisia zehatza izan dadin eta eragiteko mezu eta proposamenek eztabaida politiko eta soziala sor dezaten.
- Azken urteotan sortu edo sendotu diren bestelako sareekiko lana artikulatzea, batez ere, garapen-lankidetzako erakundeok laguntzen ez ditugun taldeak badira. Metodologia honi esker, gure lana uztartu dezakegu gizarte zibil antolatuko beste talde batzuekin, ikuspegia zabaldu eta nazioarteko lankidetzaren ikuspuntuak eta apustua aberastu.

Erronka hauen guztien helburua da “parte-hartze eskolak” sortzea, jende gazte eta helduarekin, esperientzia esanguratsuak errazteko. Ezinbestekoa da guneak sortzea, bertan parte hartzen ikasteko, parte hartuz, eta bertan gaitasunak garatzeko, eztabaida politikorako eta herri-proposamenak sortzeko.



# Herritarren kontrolerako formak: teknologia berrien zeregina

*Antxon Gallego.*  
Aholkularia Ibatuz-en

## E-partaidetzaren definizioa

- **“E” (elektronikoa)** letrak lotura zuzena dauka merkataritza elektronikoarekin, *e-gobernuarekin* eta *e-administrazioarekin*. Batez ere, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerari egiten dio erreferentzia.
- **“Partaidetza”** “parte hartze” gisa ulertu daiteke, bai deliberazio edo eztabaida bati dagokionez, eta bai erabakimen-prozesu batean subjektu gisa rol bat hartzeko orduan ere.
- **E-partaidetza** deliberazio politikoaren edo erabakimenaren nolabaiteko forma bati lotuta dago. Forma hori eratutako prozesu politikoan (partaidetza instituzionala) zein hortik kanpora (aktibismo soziala) gerta daiteke. Modu hauetan definitu daiteke:

- *E-partaidetzak “teknologia berrien elkarreragina inplikatzeko du, gizarte zibilaren eta politikaren arteko bitartekari gisa aritzeko”.*

- *E-partaidetza da “izaera sozialeko prozesu demokratiko eta aholku-emai-leak hedatu eta eraldatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKTak) bitartez”.*

## Esparru Instituzionaleko partaidetza

Partaidetzari buruzko arlo guztiak Herri Erakundeetan nola sartu daitezkeen da esparru honetan planteatzen den eztabaida. Erantzuna argia da: partaidetza sus-tatu daiteke, funtsezko lau arlotan oinarritzen diren partaidetza-ereduak bultzatuz, plangintza egokia izango dutenak eta, ondoren, prozesu parte-hartzaileak inplementatzeko aukera emango dutenak.

- Partaidetza **inklusiboa**: proposamenak, pertsonak eta interes-taldeak bere-ganatzeko dinamikak eta kanalak hartzen dituena. Laburbilduz, ahalik eta pertsona gehienen presentzia ahalbidetzea, bakoitza bere beharrezanekin, interesekin eta nahi duenean edota nahi duen punturaino parte hartzeko es-kubidearekin. Gure inguruan, e-partaidetzaren hasiera iraunkortasunarekin egon zen erlazionatuta.
- Partaidetza **gardena**: fideltasunez jasotzea gaiari buruzko adostasunak eta desadostasunak, bai eta horiek lortzeko erabilitako baliabideak ere. Gardent-asunaren sustapenari buruzko guztia agenda publikoaren barruan dago, to-kiko eta eskualdeko mailaren barruan.
- Partaidetza **irisgarria**: zenbait gai (adibidez, hiri-plangintza) ulertzeko eta interpretatzeko prestakuntza nahikorik ez duten herritarrei zuzendutako in-formazio simplea.
- **Lankidetza sustatzea** agenteen artean, desberdinen artean. Lankidetza pi-ztea, ahalik eta kolektibo gehienengana heltzeko kanalak eta baliabideak erabiliz, helburu berarekin interesatutako bitartekarietatik abiatuta, eta ahaleginen eta bitartekoen bikoiztasunak saihestuz eta funtsezkoak ez di-ren baliabideen kontsumoak albo batera utziz.

## E-partaidetzaren mugak

- **Eten digitala edo sartzeko orduan dauden desberdintasunak**. Sarrera mu-gatua delako edo teknologiak ezagutza eskatzen duelako, eta, beraz, ez da-goelako pertsona guztien esku partaidetza-metodo hauek erabiltzea.
- **Gehiegizko informazioagatiko eta kalitate eskasagatiko akatsa**. Plataforma hauek informazio-kopuru izugarria eskaintzeko aukera ematen dute, baina

tratatu gabe; hau da: prozesamendua eta sailkapena falta dira, eta horrek zaildu egiten du informazio-kopuru handi horren ulermena eta interpretazioa, gizarteko populazio-profil mota ugariengatik.

- ***Kultura parte-hartzailearen falta*** herritarren eta Instituzioen artetik. Denok dugu honek ez funtzionatzearen ardura. Orain arte, ekonomia ondo zegoenean, herritarrak udalaren (zerbitzu publikoko enpresa gisa) bezerotzat hartzen ziren, eta, horrela, herritarrek zerbitzuak eskatzen zituzten, zergak ordaintzearen truke. Eta, krisi garaian, Herri Administrazioak gaiztotzat hartu izan dira, etengabe engainuan ari diren erakundetzat, alegia. Eta ez da ikusten nolako ahalegina egiten duten Herri Administrazioek testuinguru berrira egokitzeko; agian, astiro egiten dute hori, baina gauzak ezin dira egun batetik bestera eraldatu eta berreraiki.
- ***Partaidetzaren kalitatearen galera***, topaketa presentzialek ahalbidetzen duten deliberazioa galtzen delako. Aitzitik, parte hartzeko aukera ematen die espazio presentzial horietara joaterik ez dutenei.
- ***Zeihartasuna dago*** parte hartzen duten pertsonen ***profilean***, eten digitalaren ondorioz.

## E-partaidetzaren aukerak

- Informazio politikorako sarrera zuzena ahalbidetzen du.
- Herritarren partaidetza politikoa jasotzeko aukera ematen du.
- Herri Administrazioen eta herritarren arteko bi noranzkotako komunikazio interaktiboa ahalbidetzen du. Esate baterako, sare sozialen bitartez.
- Hainbat mailatako komunikazioak ahalbidetzen ditu, espazio berean eta denboraren mugarik gabe. Gehiegi hierarkizatutako egituren dinamikak hausten ditu.
- Normalean parte hartzen ez duten kolektiboen partaidetza sustatzen du. Bilerak presentzial batera sekula joango ez lirakeen pertsonak, modu honetan, erosoago sentitu daitezke, eta, horrela, parte hartzeko erabakia har dezakete.
- Gardentasuna areagotzen du.

- Partaidetza-espazio berrien irekiera ahalbidetzen du.
- Partaidetzaren kostuak murrizten ditu. Ez dute hainbeste giza baliabide behar, ez eta hainbeste baliabide tekniko edo ekonomiko ere.
- Oso moldakorra da. Gauza askotarako erabil daitezke (E-bozketa, on-line erako deliberazioak, e-kontsultak, erabakiak hartzeko prozesuak, e-kanpainak, e-eskaerak eta abar).

## E-partaidetzaren adibideak

Egunean, partaidetzari buruzko 3 esperientzia, tresna edo aplikazio berri sortzen dira. Puri-puritan eta etengabeko aldaketan eta bilakaeran dagoen gaia da.

**1. Kopenhage.** Bere garaian, esperientzia hau aitzindaria izan zen. Kopenhageko Udal Administrazioak herritarrei aukera ematen zien Udal Institutuzioak planteatutako eztabaidei buruzko iritzia emateko edo hirian antzematen zituzten beharrianei (obrak, zerbitzuak, azpiegituren hobekuntza eta abar) buruzko oharra egiteko.

<<http://indrebylokaludvalg.kk.dk>>.

**2. AEB.** Gizarte zibiletik sustatutako esperientzia. Hirigintza-eredu berriaren garapena sustatzeko antolatutako pertsona-talde batek herritarrei planteatu zien zenbait ibilbide edo toki identifikatzeko, denak ere oinez ibiltzeko atseginak, seguruak eta errazak zirenak. Kasu honetan, ikus daiteke kolektiboetatik edo arlo pribatutik garapen mota hauen aldeko apustua egitera bultzatu daitezkeela Herri Administrazioak.

<<http://www.walkonomics.com>>.

**3. Erresuma Batua.** Lehen sektoreari lotutako esperientzia. Lehen sektorea, nekazaritza organikoa eta ekologikoa berreskuratu nahi dituen oso mugimendu indartsua dago. Ildo horretan, bat egiten duten bi mugimendu daude: alde batetik, trebatutako pertsona batzuek landa-ingurura joan eta beren proiektuak garatu nahi dituzte, baina ez dituzte hori egiteko beharrezkoak diren lurrak eta azpiegiturarak; bestetik, belaunaldi-aldaketari dagokionez, arazo handia dago Erresuma Batuko landa-inguruan, okupatu gabeko lur asko baitaude. Webgune honek ekimen mota honetan hasteko informazio zehatza ematen du. Era berean,

interes desberdinekoak diren baina bat egiten duten pertsonekin harremanetan jartzeko informazioa ere ematen du; alde batetik, lursailak dituzten pertsonak, eta, bestetik, lursailak okupatu nahi dituzten pertsonak. Esperientzia hau beste herrialde batzuetara ere eraman da; esate baterako, Kanadara edo Australiara.

<<http://www.landshare.net>>.

Partaidetzan **sare sozialak erabiltzeari** buruzko adibidea:

1. **AEB.** Herritarrekin harremanetan eta komunikazioan egoteko metodo gisa, sare sozialak (Twitter, Facebook, WhatsApp) erabiltzearen alde egin zuen lehenengo Administrazioaren esperientzia saritua. Administrazio horrek kontaktu-direktorio handia sortu zuen bere webgunean, eta, bertara sartze hutsarekin, Administrazio horretako edozein politikari edo teknikarirekin harremanetan jartzeko aukera zegoen. Eredu hori beste Administrazio askotara esportatu da; adibidez, Gijónera.

<[www.enid.org](http://www.enid.org)>.

<[www.gijon.es/page/2840-redes-sociale](http://www.gijon.es/page/2840-redes-sociale)>.

Beste praktika batzuen adibideak:

1. **Herri kontsultak.** Erresuma Batuko Garraio Publikoaren Partzuergoak partaidetzarako ataria garatu zuen, eragiten zioten zenbait gai (garraioaren ordutegiaren malgutasuna, ibilbide zehatzak, geltokiak non kokatu, hobekuntzak eta ekintzak non egin, eta abar) argitara emateko eta herritarrei gai horiei buruz galdetzeko. Garraioari buruzko herri-kontsultak planteatzeko ataria da, eta, bertan, herritarrek interesatzen zaizkien gaiei buruzko iritzia eman ditzakete.

<<https://consultations.t#.gov.uk>>.

2. **On-line erako herri-inkestak,** Finlandian garatutako proiektua.

<[www.eharava.fi/en](http://www.eharava.fi/en)>.

3. **Hausnarketa estrategikoa.** Esate baterako, Bristolen, koordinatutako eta bat egindako espazio presentzial eta birtualak ezarri dira; bertan, etorkizunerako nahi duten hiri-ereduari buruzko hausnarketa estrategikoak planteatzen dira.

<[www.imaginecalgary.ca](http://www.imaginecalgary.ca)>.

4. **Kontuak ematea. E-eskaerak.** Sinadura-kopuru jakin bat jasoz gero, gaiak Osoko Bilkurara eraman daitezke, tratatuak izan daitezten. Eta, ondorioz, 2.0 eskaeren ataria sortu da, herritarrek interesatzen zaizkien gaiak planteatu ditzaten.

<[http://epetition.havering.public-i.tv/epetition\\_core](http://epetition.havering.public-i.tv/epetition_core)>.

5. **Mugikortasun-esperientziak.**

<<http://a841-tfpweb.nyc.gov/4thave>>.

6. **Aurrekontu parte-hartzaileak.**

<[www.backseatbudgeter.com/budgets/colorado2011/default.aspx](http://www.backseatbudgeter.com/budgets/colorado2011/default.aspx)>.

## Ondorioak

- Teknologia berriak, planteatutako partaidetzaren mailak eta kalitatea hobetzeko aukera ematen duten tresna edo baliabide gisa, ez helburu gisa.
- Teknologia berriak bi elementu handitan sartzen dira:
  - **Smart cities** edo hiri adimendunen kontzeptua. Zerbitzu publikoaren eraginkortasuna hobetzeko erabilitako teknologia berriak, hau da: partaidetzara bideratutako teknologia berriek kudeaketa publikoa hobetu dezakete.
  - **Gobernu irekiaren** paradigma edo kontzeptu berria (garatzen ari den aukera-espazio berria).

## Gobernu Irekia, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzeko

Orain arte, herritarren partaidetzari ikusten zitzaion arazo nagusia zen nahaste-borraste moduko bat zela, elementu isolatua, gainerako udal kudeaketan ez zena zeharkakotasunez sartzen. Gobernu Irekiaren paradigma berriarekin, partaidetza ez da elementu isolatua; aitzitik, harremanetan dago beste elementu batzuekin, hau da, informazio publikoaren gardentasunarekin eta lankidetzara publiko-pribaturako espazioen sorrerarekin; izan ere, Herri Administrazioak derrigortuta daude eguneroko lanetik eta partaidetzatik sortzen diren datuak -*Open Data*-herritarren esku jartzera.



Gobernu Irekiaren **definizio** posibleak:

- “Gobernu irekia doktrina politikoa da, eta, horren bitartez, adierazten da gobernuaren jarduera (eta Estatuko Administrazioarena) irekita egon behar dela maila guztietara, jendeak modu eraginkorrean aztertu eta gainbegiratu dezan”.
- “Administrazioaren eta herritarren arteko bi noranzkotako eta etengabeko komunikazio-mota berri eta gardena, zeinaren bitartez herritarren partaidetza eraginkorra lortzen baita, kudeaketa publikoa kontrolatzeko eta horren gainean erabaki eta lankidetzan aritzeko prozesuetan”.

Hauk dira Gobernu Irekiaren kontzeptu berriari eusten dioten **zutabeak**:

- **Partaidetza.** Politika publikoak osatzeko orduan, tokiko Gobernu partehartzaileak modu aktiboan parte hartzeko aukera ematen die herritarrei, eta, horrela, Administrazioak herritarren ezagutzaren eta esperientziaren gaineko onurak jaso ditzake.
- **Lankidetzak publiko-pribatua.** Lankidetzan oinarritutako tokiko Gobernuak herritarrak eta gainerako agenteak inplikarazten eta konprometitzen ditu Administrazioaren lanean.
- **Gardentasuna.** Tokiko Gobernu gardenari esker, Administrazioak herritarren aurrean kontuak ematea sustatzen eta ahalbidetzen da; gainera, modu horretan, egiten ari denari eta ekintza-planei buruzko informazioa ematen da.



# Herritarrek politika publikoak kontrolatzeko moldeak: Propuesta Ciudadana Taldeak zaintzaren arloan egindako bidea

*Eduardo Ballón.*

Propuesta Ciudadana taldearen koordinatzailea

## Propuesta Ciudadana taldea

Propuesta Ciudadana taldea (aurrerantzean, PCT) orain 22 urte sorturiko plataforma bat da; 11 GKEk osatuta dago, eta zuzenean esku hartzen du Peruko 25 eskualdeetako 10etan. Eginkizun hau hartu zuen bere gain: hiriko eta landako gizarte mugimendu eta erakundeen protagonismoa sustatzea, baita eskualdeko eta tokiko gobernuena ere, betiere, Estatu demokratizatzeko bidean eta lurralde garapenerako proiektu inklusibo bat eraikitzeari begira. Xede horiek betetzeko, honako 3 estrategia nagusi hauek landuko zituela zehaztu zuen:

- Ahalmenen garapena eta partaidetza sustatzea, gizarte zibilari dagokionez.
- Herritarrek Estatuaren jarduna zaintzea.
- Nazio eta eskualde eragina, politika publikoetan, bi esparruen arteko zubi edo elkarreraginerako molde gisa.

## Testuingurua eta esku-hartzearen ikuspegia

### 1. Testuingurua

- XXI. mendearen hasieran gertatutako demokraziarako trantsizioak inola ere ez zuen aldarazi herrialdearen hazkunde ekonomikoko ziklo luzea azaltzen duen eredu primario-esportatzailea. Gehiago izan zen Amerikako Estatu Departamentuaren interesek behartutako trantsizio bat, herrialdean bertan gertatzen ari ziren prozesuek ekarritakoa baino.

- Deszentralizazioa modu atipikoan agertu zen. Ez zen izan herritarren eskakizun baten ondorioa, ezta Estatuaren eraginkortasuna bilatzeko ariketaren emaitza ere: gobernu berri baten ahultasunaren ondorioa izan zen. Gobernua ohartu zen zilegitasun berri bat eman behar zitzaiola Estatuari, garai bateko zilegitasuna galdu baitzuen aurreko hamarkadetako hiper-zentralismoaren, ustelkeriaren eta barne gatazken eraginez.
- Erakundeak oso ahul zeuden.
- Gizarte zibila zatituta zegoen.
- Goitikako eta behetikako diskurtsoak bereizten ziren, eta mota batekoek nahiz bestekoek beren asmoetarako tresna baliagarri gisa ikusten zuten partaidetza.

## 2. PCTren ikuspegia

- Gobernantza zegoen jokoan. Gobernantza hitzari demokraziaren abizena jarri diezaiokegu; irizpide instrumental gisa, interesgarria zen boterearen konfigurazio mapetara hurbiltzeko, eta gizarte eta ekonomia eragileen igurikapenak, gatazkek eta, ikuspegi horretatik, egitura eta gatazkatsutzat jotzen diren elkarre-ragin moldeak ardatz harturik begiratzeko mapa horiei. Hauek dira horretarako oinarrizko mekanismoak:
  - Informaziorako sarbidea.
  - Kontuak ematea.
  - Gardentasuna.
  - Herri partaidetza.
- “Fujimorismoa” deritzon erregimen autoritariotik irtenda sartu ginen logika horretan. Erregimen hark Latinoamerikako Informazio Publikorako Sarbide Legerik erradikalena onartu zuen, eta munduko kontsulta sistema konplexu eta osoenetako bat diseinatu zuen, zeinaren arabera ikus baitaitezke linean (online) Estatuaren bizitzaren hainbat alderdi, Estatuan eragitea ahalbidetzen dutenak.

## GPTren esku-hartzeak: funtzionamendua

Propuesta Ciudadana plataformak 3 instantzia nagusiren bidez gauzatzen du eguneroko jarduna, esku-hartze logika handi bati jarraituz. Hauek dira taldearen instantzia nagusiak:

- Bazkideen Batzarra. Erakundeen ordezkariak dira, eta urtean behin edo bitan elkartzen dira.
- Zuzendaritza Kontseilua. Bazkideek aukeratutako 3 erakunde dira, eta erakundearen eguneroko bizitza ordenatzea dute helburu.
- Koordinazio Exekutiboa. Bazkideen Batzarrak koordinatzailea aukeratzen du, baita profesional eta teknikarien talde exekutibo bat ere.

<p><b>Bazkideen Batzarra:</b> Erakunde bakoitzeko ordezkari bat. Urtean 2tan egiten du bilera</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Orientazio estrategikoak eta erakunde politikak definitzea</li> <li>• Zuzendaritza Kontseilua eta koordinatzaile exekutiboa aukeratzea</li> <li>• Urteko Plan Operatiboa onartzea eta ebaluatzea (POA)</li> <li>• Talde zentralaren eta bazkideen arteko koordinazioa</li> </ul>
<p><b>Zuzendaritza Kontseilua:</b> Batzarraren hiru erakunde, urtero aukeratuak, horietako bat buru dela. Urtean 6 aldiz elkartzen da</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Partzuergoaren lanaren aldiari jarraipena</li> <li>• Taldearen lan operatiboari sostengua ematea</li> <li>• Abagunearen jarraipena</li> </ul>
<p><b>Koordinazio Exekutiboa:</b> Koordinatzaile exekutibo bat, Bazkideen Batzarrak aukeratua</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Presidentearekin koordinatuta, bere gain hartzen du partzuergoaren ordezkartza, baliabideak kudeatzen ditu eta plan operatiboak eta aurrekontuak proposatzen ditu</li> <li>• Lana antolatzen du, programaka (lan arloka)</li> <li>• Kontuak ematen dizkio Bazkide Batzarrari</li> </ul>

Lurraldeetan esku hartzen du, erakunde bazkideen bitartez; erakunde bakoitzak bere plataformak, sareak eta gizarte zibila mobilizatzeko eta ekintza kolektiborako moldeak lantzen ditu.

Esku-hartzeari dagokionez, 3 ardatz nagusi hauek ditu:

1. Ahalmenetan trebatzea eta partaidetza sustatzea.
2. Nazio eta eskualde eragina.
3. Herritarren zaintza.

Elementuak	Jarduera ildoak
<b>Ahalmenetan trebatzea eta partaidetza sustatzea:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Partaidetza sustatzea</li> <li>• Prestakuntza programak</li> <li>• Participa Perú sarea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskualdeetan erakunde arteko plataformak sustatzea</li> <li>• Sare nazionalak sustatzea</li> <li>• Trebakuntza moduluak sortzea</li> <li>• Participa sarerako buletinak eta foroak lantzea</li> </ul>
<b>Nazio eta eskualde eragina:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Agenda Nazional Deszentralista</li> <li>• Eskualde gobernuen erakunde berrikuntzako prozesuen sustapena eta sostengua: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskualdeetako eragina: OT</li> <li>- ANGRren sostengua</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bilera eta batzorde tematikoak sustatzea</li> <li>• Kontzertazio esparruak ANGR-ren eta gizarte zibilaren artean</li> <li>• Kanpainak prestatzea</li> <li>• Eskualde akordioak lantzea</li> </ul>
<b>Herritarren zaintza:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erauzketa-industrian errenta sortzea, banatzea eta erabiltzea</li> <li>• Eskualde gobernuen kudeaketa</li> <li>• Nekazaritza txikirako eta hezkuntzarako politika eta aurrekontu publikoak</li> <li>• Peruko meatzaritza eta petrolio emakidak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarraipen eta zaintza txostenak lantzea</li> <li>• Eskualde eta nazio buletinak lantzea</li> <li>• Zaintzako trebakuntza moduluak eta liburuxkak diseinatzea eta inplementatzea</li> <li>• Aholkularitza programak diseinatzea eta gauzatzea</li> </ul>

Funtzionamendu sistemak 3 kontzeptu handi hauek ditu oinarri:

1. **Partaidetza.** Denboran bat egiten duten bi historia daude. Bata 70eko hamarkadatik dator: defizit demokratikoari aurre egiteko partaidetzaren historia da. Partaidetza hori hainbat alderdiren diskurtsoetan finkatu zen, hala nola, Brasilgo PTrean edo Uruguaiako Frente Amplio alderdiarenean. Boterea eta baliabideak birbanatzeko logika bat adierazten du, eta partaidetzan oinarrituriko aurrekontuaren tresna hartzen du eredutzat, zeinak sortu baitzituen, azkenetako, Porto Alegrekoaren antzeko mitoak. 90eko hamarkadan, bide horri heldu zioten hainbat alderdi biltzen zituzten ekimen edo prozesuen diskurtsoek, Washingtoneko Kongsentsuaren baitan: defizit

sozial eta ekonomikoari aurre egiteari begira, baina, bereziki, esku-hartze publikoaren eraginkortasunak zekartzan erronkei erantzuteari begira, pobreen bizi kalitatea hobetzea planteatu zen, pobreei zerbitzuetarako sarbidea emanez. Une horretan, Munduko Bankuak (pobreziari buruzko bere txostenetan), Garapenerako Banku Inter-amerikarrak (partaidetzari buruzko kontsulta eta praktika gidan) eta Nazio Batuen Garapen Programak (partaidetza giza eskubide bihurtuz) konplexuagotu egin zuten diskurtsoa, eta askotariko solaskideak aitortu zituzten. Konplexutasun horren lekuko, GPTk begirada instrumentalago baten aldeko hautua egin zuen, egin nahi zenerako baliagarria zela jota, herri partaidetza modura harturik herritarrek pertsonen bizi baldintzei eragiten dieten kudeaketa prozesu nagusietan esku hartzeko duten ahalmen politiko eta juridikoa, barne harturik banakako nahiz taldeko partaidetza, zuzenekoa nahi ordezkarien bidezkoa eta askotariko modalitateak.

**2. Kontu ematea.** Prozesu proaktiboa, zeinaren bidez jakinarazten eta justifikatzen baitituzte eragile publikoek beren plan, erabaki eta emaitzak. Desberdinen arteko erlazioa izanik (gizartea-Estatua) eta, beraz, erlazio asimetrikoa izanik, zaintza eskatzen du.

**3. Zaintza.** Gizarte zibilak gobernuaren eta funtzionarioen jarduna zaintzea.

## Propuesta Ciudadana taldearen zaintza lana

**Zaintza sistema** bat sortzea zen asmoa, bultzada emateko XX. mendeaz geroztik bizitako erreforma prozesu bakarrari, alegia, deszentralizazioari. Zaintza sistema horren bidez gizartearentzat egoki eta erabilgarri izango ziren egiteko moldeak sortu nahi ziren, baina, betiere, egiteko molde horien bidez zorrotasuna eta sistema hura “*sozialki baliozkoa eta zilegia*” egingo zuten irizpideen definizioa bilatuz eta eragileak han esaten zenaren baliozkotasuna onartzera behartuz, mugimendu eta eragile indibidual eta sozialak agudioz jantzeko.

Arloaren helburu espezifikoa	Estrategiak	Emaitzak
<p>Deszentralizazio prozesuari buruzko nazio, eskualde eta tokiko zaintza sistema bat eraikitzea, 16 eskualdetan</p>	<p>Zaintza sistema garatzea, haren adierazleak, prozesuak eta prozedurak hobetuz, erabilera erraztearren</p>	<p>Baliozkotutako deszentralizazio prozesuari buruzko herritarren zaintzarako adierazleen sistema</p> <p>Eskualde eta nazio mailako txostenak egin dira, prozesuaren eta gobernuko instantzien jarraipenari buruz</p> <p>Herritarren zaintza sistemaren estaldura zabala lortu da</p> <p>Gizarte zibileko sektore adierazgarriak kontuan hartu dira txostenen erabileran, bereziki baztertutako sektoreak</p>
<p>Gizarte zibileko kontzertazio esparruen ahalmena areagotzeko ekarpena egitea, eskualde eta nazio mailako erauzketa-jarduere errentaren erabileraren eta kudeaketa publikoaren jarraipenari dagokionez</p>	<p>Eskualde erakundeak eta demokrazia sendotzeko ekarpenak indartzea</p>	<p>Eskualdeko kudeaketa publikoari eta eskualde lehenetsietako eta nazioko erauzketa-jardueren errentari buruzko informazio sistema finkatua</p> <p>Eskualde kudeaketaren eta exekuzioaren jarraipenerako mekanismo sendoak, zabalkunde kanpainen oinarri</p>
<p>Meatzaritza-jardueretatik eratorritako funts publikoen eta sasi-publikoen erabilerari buruzko gardentasuna areagotzea, bereziki PMSP funtsei eta Gizarte Funtsei dagokienez</p>	<p>Erauzketa Industrien Gardentasunerako Ekimenak (EITI) sustatzen duen informazioarako sarbidea erabiltzea eta zabaltzea</p>	<p>Gardentasun handiagoa PMSP funtsetan eta Gizarte Funtsetan</p> <p>EITIak PMSP funtsetan eta Gizarte Funtsetan sartzea</p> <p>EITI mekanismoaren nahitaezotasunari buruzko eztabaida</p> <p>Gardentasun pilotu implementatuak</p>



Zaintza sistemak bi mugarri nagusi izan ditu:

1. Deszentralizazioa.
2. Erauzketa-industriei lotua.

Hala, agerian gelditzen da sistemak unean uneko abagune sozialei erantzuten diela. Gaur egun, hirugarren mugarria dugu begi-bistan: obra publikoen zaintza, lurralde jakin batzuetan, lurralde horietan diharduten gizarte eragileak sendotzeko bitarteko gisa.

### **Zaintza sistema eraikitzeke eskakizunak**

1. Neutraltasuna: prozedura eta formatu estandarizatuak diseinatzea, autoritateek deszentralizazioan egiten duten lanaren berri emateko, eta lan hori puntuatzeko, gaitzetsi gabe.
2. Objektibotasuna: zer neurtuko duen jakinarazi nahi da, irizpide argi eta eza-gunetan oinarriturik eraikitako adierazleen matrize batetik abiatuta, informazio publiko kantitate izugarria dagoela baliatuta.
3. Erregularitasuna: monitorizazio txostenak denboran zehar modu sistemati-koan ematea datza, eta bazkideekin aurkezpen eta eztabaia publikoa egi-tean, lurraldez lurralde.
4. Monitorizatuekiko solaskidetzak, txosten bakoitzari buruzko eztabaida egi-nez lurralde agintari eta funtzionarioekin, erantzuteko aukera emanez.

Oinarrizko ideia zen prozesu horrek guztiak -5 urteko epean gauzatua- politika publikoetarako proposamenak elikatzea, GPTk proposamen horiek aurrera era-man zitzan, bere bazkideekin batera eta beste gizarte mugimendu eta sare eta plataforma batzuekin aliantzak eginez; eta bete egin zen ideia hori.

### **Estrategiak eta tresnak**

1. **Zaintza.** Txostenak eta sareen eta hedabideen bitartez zabaltzeko buletin sistema dira oinarrizko tresnak.
2. **Gardentasuna.** Lehenik eta behin, eskualde gobernuen atariak eta haien informazioa ikuskatu ziren. Ondoren, buletinaren modalitatea indarrean jarri

zen, erauzketa-industrietan sartuta, eta kontuan hartu ziren borondatezko ekarpenak, enpresen gardentasun rankinga eratu zen eta erauzketa industriek gardentasunari begirako neurriak har zitzaten bilatu zen.

### 3. Iritzia sortzea eta eztabaida publikoa, eragiteko baldintza gisa.

### 4. Azterketak eta proposamenak.

Zaintza	Gardentasuna	Iritzia sortzea eta eztabaida publikoa	Azterketak eta proposamenak
Zaintza txostenak (nazionalak eta eskualdekoak)	Eskualde gobernuen atariak ikuskatzea	Informazio eta analisi oharrak	Gaika: (i) kanonaren banaketa eta erabilera; (ii) meatzaritza-zergak eta gainirazabaziak; (iii) eskualde gobernuen inbertsio ahalmena; (iv) gardentasuna
Buletinak	Borondatezko ekarpenaren kudeaketaren txostena	Foro eta mintegi publikoak	Proposamenka: (i) atari estandarra (gardentasuna); (ii) belaunaldi arteko aurrezki eredu, kanonetik abiatua; (iii) kanona hobeto banatzea; (iv) gainirabaziak; (v) kanonaren erabilera; (vi) nekazaritza txikirako inbertsioak handitzea
	Meatzaritza-industrien gardentasun rankinga	Hedapen eta trebakuntza materialak	
	EITI ekimenean parte hartzea eta hura sustatzea	Hedabideetako presentzia	
		Inbertsio publikoen datu-basea, sail eta gobernu mailaka (barrutiraino)	
		Emakiden datu-baseak	
	Sareetan parte hartzea		

## Zaintza matrizearen adibideak

### 1. Deszentralizazioa. 6 alderdi lantzen dira:

- Aurrekontu kudeaketa.
- Arau ekoizpena eta gardentasuna.
- Herri partaidetza.
- Inklusioa-Esklusioa.
- Hezkuntza.
- Osasuna.


### 2. Erauzketa-industriak. 4 alderdi lantzen dira:

- Errenta sortzea.
- Errenta banatzea.
- Kanona eta erregaliak erabiltzea.
- Gardentasuna eta informaziorako sarbidea.

Gaiak, gobernu mailak	Errenta sortzea	Errenta banatzea	Kanona eta erregaliak erabiltzea	Gardentasuna eta informaziorako sarbidea
Gobernu zentrala		X		X
Eskualde gobernu, tokiko gobernu			X	X
Enpresak	X			X

Erauzketa-industriei dagokienez, 32 adierazle erabili dira, eta deszentralizazioari dagokionez, berriz, 42 adierazle. Adierazle bakoitzeko txosten-fitxa bat osatu da, eta gako-informatzaileen elkarrizketarako gida bat prestatu da. Eginkizun hori ez dagokio gizarte zibilari, oso eginkizun neketsua delako. Horretantxe datza haren bertute eta eragozpen nagusia. Eta muga handi bat du: garapenerako lankidetzaren ondorengoa eta mendekoa dela, eta politika publiko nazional eta eskualdekoan eragiteko pentsatutako hurrenkera metodologiko baten arabera diseinatuta dagoela. Elementu horietatik abiatuta, gizarte zibilak eguneroko bizitzan

erabiltzeko transferitu behar duenaren oinarriak eta irizpideak finkatu nahi dira, eta dena ongi artikulatu, gizarte zibilaren mobilizaziorako baliagarri izan dadin.



## Lorpenak eta mugak

### 1. Lorpenak:

- Eskualdeko 25 gobernuek dute gardentasun estandarraren ataria, eta Herri Defendatzailea behartuta dago atari horiek monitorizatzerara.
- Peruko Estatuak zorroztu egin zuen erazketa-industrien gardentasuna. Propuesta Ciudadana taldea gizarte zibilaren ordezkaria da talde nazionalan, eta areagotu egin dira arlo horretako eskakizun mailak. Herrialdeko eskualdeetan plataforma autonomoak eratu dira politika publikoko prozesuen zaintzarako.
- Gobernu nazionalak eta enpresek solaskide zilegitzat aitortzen dute GPT.

### 2. Mugak:

- Goren mailako gaitasun profesionalak eskatzen ditu sistemak, eta, hortaz, kostu handia du.

- Etengabeko inbertsioa egin behar da gaitzearen arloan, egin nahi den esku-hartzearen mailaren eskalan.
- Estatuak ez du kosturik hartzen bere gain. Borroka handia egiten ari da Estatuak kostu horiek bere gain har ditzan: izan ere, demokrazia ez da doako zerbitu, ezta partaidetza ere, demokraziaren parte den heinean.
- Estatuaren eta enpresen etengabeko erresistentzia, informazioa emateari dagokionez.

## **Ikasitako irakaspenak**

Hau izan da azkenaldiko ikaskuntza aipagarriena: tokiko obren eta zerbitzuen zaintzak herritarrentzat duen garrantzia, ez zaintzagatik beragatik, herritartasun molde aktiboagoak sortzeko eta zubiak eraikitzeko egiten duen ekarpenagatik baizik.

Prozesu instrumentalak dira guztiak ere; alegia, ez dira xedeak, bere horretan. Prozesu horien baliagarritasuna abaguneen arabera izango da, eta gizarte zibiliko nahiz gizarte zibilaren eta Estatuaren arteko indar korrelazioaren arabera.

Horretan guztian, funtsezko ezaugarria da tresna horiek gizarte zibilaren hainbat sektoreen mobilizazioa ahalbidetzen dutela, ekintza kolektiboa aberasten dutela, argudioak sortzen dituztela eta eragin ekintzak gauzatzeko baldintzak sortzen edo ahalbidetzen dituztela, zentzurik klasikoenean.

Behartu egiten dute estandar publikoak eta pribatuak hobetzera, eta, bide horretatik, gardentasuna sustatzen dute.

Erakunde partaidetza sendotzeko aukera ematen dute, baina baita zuzeneko mobilizazioa sendotzeko ere.

Partaidetza, gardentasuna, zaintza eta kontuak ematea tresna baliagarriak dira gizarte mugimenduen ekintzarako eta herritarrek partaidetza prozesuetan eragiteko.

Gizarte gero eta konplexuagoetan bizi garelarik, herritarrak bere denboraren parte bat hartu behar du herri partaidetzarekin loturiko eginkizunetarako, baldin eta gobernagarritasun demokratikoa eratzeke moduan egon nahi badu.

